

XXXIII. DONOSTIA HIRIA
XAKE TXAPELKETA IREKIA
TXAPELKETAREN ARAUAK

1. Txapelketa 9 txandatarara jokatuko da Ratingean oinarritutako Suitzar Sistema erabiliz, 2010eko martxoaren 28a eta apirilaren 4a artean. Swiss Manager programa erabiliko da parekatzeak egiteko, nahiz eta epaileek gainbegiratuko duen txanda bakoitzeko partiden zerrenda.
2. Partidak, Gros Xake Taldearen egoitzan jokatuko dira, Anoeta Pasealekua 20 (Karmelo Balda) ondorengo ordutegian

Martxoaren 28a (igandea): 17:00
Martxoaren 29a (astelehena):17:00
Martxoaren 30a (asteartea): 17:00
Martxoaren 31a (asteazkena):17:00
Apirilaren 1a (osteguna): 10:00
Apirilaren 1a (osteguna): 17:00
Apirilaren 2a (ostirala): 17:00
Apirilaren 3a (larunbata): 17:00
Apirilaren 4a (igandea): 9:30

3. Jokalariak 90 minutu izango dituzte partidarako, egiten duten jokaldi bakoitzarengatik 30 segundo gehituz.
4. Erlojuak goian esandako orduetan jarriko dira martxan, eta ordu horretatik 30 minutu pasatzean etorri ez diren jokalaria guztiei partida galdutzat emango zaie.
5. Jokalariak berdinketa adostu dezakete euren partidak dirauen artean, Xakearen Legeen 9.1.b Artikuluari jarraiki.
6. Jokalari bat partida batera etorriko ez balitz arrazoirik eman gabe, txapelketatik egotziko genuke.
7. Jokalariak 0,5 puntu balio duten 2 atsedeen edo “bye” izango dituzte euren eskura. “Bye” horiek erabili ahal izateko, behar besteko aurrerapenarekin epaile taldeari horrela eskatu beharko zaio. Edozein modutan, azken bi txandetarako ezingo dira eskatu eta antolakuntzak gonbidatutako jokalariek ere ezin izango dituzte erabili.
8. Apelazio Batzordea 5 jokalarik osatuko dute horien artetik 3 Batzordearen kide titular izango dira eta gainontzeko biak ordeztuko, titularretako norbait arazoan murgildurik balego berau ordeztuko. Apelazio Batzordearen kideak Epaile Nagusiak izendatuko ditu Txapelketaren Zuzendaritza entzun ostean.

9. Epaileen edozein erabakiri helegitea jartzeko, Apelazio Batzordeari idatzi bat igorriko zaio Epaile Nagusiaren bidez, eta edozein kasutan, arazoa gertatu den saioa bukatu eta ordu bete beranduago arteko epea egongo da horretarako. Batzordearen erabakiak aldaezinak izango dira.
10. Lehen txandako partidak, txapelketaren irekiera saioan jakinaraziko dira. Gainontzeko txandetan, behar besteko aurrerapenarekin jakinaraziko dira.
11. Ez da onartuko Joko Gelan partiden analisirik egitea. Horretarako dago Analisi Gela. Bertara ezingo dira eraman txapelketako tablero, pieza zein erlojuak.
12. Guztiz debekatuta dago aurrez epaileak onartu gabeko eskuko telefono edo beste edozein gailu elektroniko jokatzeko gelan sartzea. Partidak dirauten artean, jokalariren baten telefono edo beste gailu batek joko balu, jokalaria partida galdu egingo du. Epaileak erabakiko du zein izango den aurkariaren puntuazioa. Jotzea esaten denean, gailuak egindako edozein soinu edo bibrazio esan nahi da, deia, mezua, alarma edo beste edozein delarik zergatia.
13. Xakearen Legeek 8.1 eta 8.4 ataletan diotenari jarraituz, jokalariek ezin izango diote jokaldiak idazteari utzi partidan zehar.
14. Pertsona orok Joko Area utzi beharko du, epaileak hala eskatuta, bere lana erraztearren.
15. Arrazoiren batengatik Joko Area utzi behar bada, abisatu mesedez Epaile bati. Partida jokatzeko ari diren jokalariek ezin izango dute Analisi Gelara sartu.
16. Sailkapen eta sariak jasotzeko, berdinketak ondoko desberdintze sistemak erabiliz desegingo dira:
 1. ARPO(-1,1) Sistema: aurkariaren performance errekursiboaren batezbestekoa, altuena eta baxuena izan ezik. Definizioa eta kalkuluak egiteko programa Julio Gonzalez Diaz eta beste batzuenak dira eta http://webs.uvigo.es/julio.gonzalez/Desempate/Performance_Recursiva.htm helbidean lor daitezke.
 2. Gainjarria: Txanda bakoitzean jokalaria dituen puntuen batuketa. Berdinketak jarraituz gero lehenengo txandako emaitzak kenduko dira, berdinketak jarraitzen badu bigarren txandakoak, eta horrela jarraituko da txandaz txanda berdinketa hautsi arte.
 3. Bucholz brasildar zuzendua: aurkariaren puntuen batuketa txikiena izan ezik (*).
 4. Zozketa.

(*) ikurra daukaten sistemak kalkulatzeko, jokatu gabeko partidak berdinketa moduan hartuko dira.

17. Sariak banaezinak dira. Jokalari batek ez du sari bat baino gehiago jasoko.
18. Epaileen izenak jakin bezain laster argitaratuko dira.
19. Txapelketan parte hartzeak oinarri hauek eta gainontzeko araudi guztia onartu eta betetzea esan nahi du.

Arau hauen interpretazio arazorik sortuko balitz,
gaztelaniaz idatzitakoak hartuko dira baliozko gisa